



BOZUE UDALTALDE 21



**Tokiko Agenda 21. Abaltzisketa.
Ekintza Planaren Eranskina**

Izenburua / Título:	Tokiko Agenda 21. Abaltzisketa. Ekintza Planaren Eranskina			
Egileak / Autores:	Oinarrizko Lantaldea: Amaia Aramendi (Tokiko Agenda 21eko Teknikaria, Tolomendi), Miren Askasibar (Paisaia, S.L.), Onintza Andrés (Paisaia, S.L.).			
Hartzaileak / Destinatarios:	Abaltzisketako Udala			
Edizioko data / Fecha de edición:	2007ko apirilaren 23a			
Itzulpena / Traducción				
Orriak / Páginas:	5			
Bertsioa / Versión:				
Erreferentzia / Referencia:				
Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:	2006ko otsailaren 20a			
Iraupena / Duración:				
Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

EKINTZA PLANAREN ERANSKINA

Ondoko orrietan, Ekintza Planaren fasean ospatutako Herri Batzarraren inguruko datu eta emaitzak jasotzen dira.

EKINTZA PLANARI LOTUTAKO ABALTZISKETAKO HERRI BATZARRA

Herri Batzarra 2007eko martxoaren 16an burutu zen, iluntzeko 20:00etan hasita, Abaltzisketako Kultur Etxean.

Batzarra 10 minutu inguruko atzerapenarekin hasi zen.

Bertara 18 herritar gerturatu ziren, tartean 4 udal ordezkari.

Saioaren aurkezpena Amaiak burutu zuen, Tokiko Agenda 21 prozesuaren azalpen orokorra egin eta Abaltzisketako prozesuaren nondik norakoak zehaztuz (orain arte egindakoak eta egiteko daudenak).

Jarraian, Abaltzisketako Ekintza Planaren aurkezpena egin zuen Mirenek. Parte-hartzea eta komunikazioaren inguruko gaiak jorratu ziren eta ekintza planaren oinarrizko egitura ere azaldu zen. Saioaren helburuak eta jarraitu beharreko metodologia ere zehaztu zituen Mirenek.

Ondoren, taldekako gaien banaketaren berri eman zuen, talde bakoitzak zein gai landuko zituen zehaztuz.

Aurkezpena burutu ondoren herritarrak taldeetan biltzeko proposamena egin zen, 3 lantalde eratuz. Udal ordezkariak lantaldeotan parte hartu zuten. 20:35erako aurkezpena bukatuta eta partaideak taldeetan banatuta zeuden.

Lantaldeak	Dinamizatzailea	Partehartzaileak
1. Lantaldea (LE1: P.1.1., P.1.2., P.1.3. eta P.1.4.)	Miren	
2. Lantaldea (LE1: P.1.5. eta P.1.6.; LE2; LE3: P.3.1., P.3.2. eta P.3.3.)	Onintza	5
3. Lantaldea (LE 2: P.3.4., LE 3, LE 4, LE5, LE6, LE7, LE8, eta LE9).	Miren	5

Dinamizatzaile bakoitzak lantaldean egin beharrekoak azaldu zituen.

Lehenik, ekintzak irakurri ziren taldeka (talde bakoitzeko dinamizatzaileak), kasuan-kasuko ekarpenak jasoz.

Jarraian, lehentasunezko ekintzak aukeratu zituzten herritarrek, taldean adostuz. Bakarkako lanik ez zen egin. Taldeetako lana 22:00 ingururako amaituta zegoen.

Talde lana amaitutakoan talde bakoitzean jasotako emaitzak guztien aurrean azaldu zituzten dinamizatzaileek.

Saioari 22:40ak aldera eman zitzaion amaiera, ondoren elkartean kafea eta pastak hartzeko gonbitea egin zelarik.